

'Pinochet auzia' Lorden epaia

Pinocheten aldekoek eta aurkakoek pozez hartu dute Lorden Ganberaren epaia

Txileko Gobernuaren ustez, adituek zorroztasunez aztertu behar dute epaia

Erredakzioa / Donostia

TXILEKO Gobernuak «zorroztasunez» aztertuko du «epai konplexu hori». Jorge Arrate Lehendakartzako ministro idazkari nagusiak atzo esan zuenez, erabakia «pertsonek adituek zorroztasun handiz aztertu behar dute, zer dioten zehazki jakiteko». Arratek ez zuen iritzirik eman nahi izan, baina Londrestik iritsitako informazioaren inguruan gizarteko taldeek agertutako lasaitasunaren garrantzia azpimarratu zuen.

Txileko Gobernuan koalizioan agintzen duen Demokrazia Kristauaren (DC) ustez, epaiak ez du subiranotasun nazionala errespetatzen. DCko lehendakari Enrique Kraussek irakurritako agiriak dioenez, «epaiak lege penalaren atzeraeraginik ezaren printzipio unibertsala berriz onartu badu ere, ez ditu aintzakotzat hartu Txileko Gobernuaren argudioak arau penalen ezartzearen lurraldekotasunaren, subiranotasun juridikozionalaren eta immunitate diplomatikoren gaitetan. Hala ere, epaiak Pinochet Txilera buelta daitekeela pentsaraz dezake».

Koalizio berean dagoen Demokraziaren Alderdiko (PPD) lehendakari Sergio Bitar senadoreak, berriz, herrialdearen subiranotasu-



Bartzelonan erbesteratutako txiletar talde bat, pozik, lorden epaia entzun eta gero.

na zalantzan ez dagoela, epaiarekin pozik dagoela eta Pinochet Txilen epaitu behar litzatekeela esan zuen. Txileko alderdi eskuindarrak ere gustura agertu dira erabakiarekin. Alderdi Sozialistaren ustez (PS), «aurrera-pauso garrantzitsua da justiziaren eta giza eskubideen defentsan».

1988a baino lehenagoko sarraskiak epaitu ezin badira ere, biktimen senitartekoak pozik daude Londresen

emandako epaiarekin. «Pinochetek Londresen atxiloturik jarraitzea garaipen bat da; gure herrialdeko sendi askotan egindako kaltea konponduko du epaiak», esan zuen Atxilotu Desagertuen Senitartekoen Elkartearen lehendakari Sola Sierrak.

Epaia jakin ondoren, Westminster jauregiaren aurrean bildutako Pinocheten aurkako milaka lagunek abesten eta dantza egiten ospatu zuten erabakia. Pinochet

Fundazioaren egoitzan bildutako aldekoek ere pozik hartu zuten epaia, 1988a baino lehen egindako delituetan immunitatea lortu baitu. Hala ere, «Pinochetek duen egoeraz arduratua» dagoela adierazi du Armadak.

Gonzalo Townsend Pinochetek, bere osabak immunitate osoa merezi duela esan zuen, eta epaia ez dela behar bezain positiboa, «1988 bitarteko eskubideak bakarrik onartzen zaizkiolako».

erreakzioak

Iñaki Anasagasti • EAJ

«Ikasbide ona da Espainiako justiziarentzat»

►EAJko Iñaki Anasagastiren ustez, erabakia «al-biste ona da, demokrazia eta justiziarentzat batez ere». Eta GAL auzian auziperatuak daudentzako ere zigorra eskatu zuen, «ministro, zuzendari edo gobernadore izan arren». «Francori berdina gertatu ez izanaz» atseka-bea agertu eta «Espainiako justiziarentzat ikasbide ona dela» esan zuen.

Begoña

Lasagabaster • EA

«Estatuburuak ekintzek ezin dute immunitaterik eduki»

►Pinocheten estradizioa egiten uztea, nazioarteko zuzenbidean oso aurrerari garrantzitsua dela eta Estatuko buruen ekintzek ezin dutela immunitaterik eduki esan zuen Begoña Lasagabasterrek. «Beste inor tentaldi berdinean eror ez dadin, aurrerari garrantzitsua da», gaineratu zuen.

Pablo Castellano • IU

«Zuzenbidearen arrazoiaren garaipena da»

►IUko Pablo Castellano pozik hartu du erabakia, «arrazoi politiko-partidistaren aurrean, zuzenbidearen arrazoiaren garaipena baita, eta delitu batzuk muga baten barruan gelditzea aukerak gutxitzen dituelako».

Ricardo Solari

• ALDERDI SOZIALISTAKO LEHENDAKARIORDEA •

«Egun handia da gaurkoa»

Ainhoa Gerra / Donostia

■ Pinocheti immunitatea ezeztatu diote. Zein da zuen balorazioa?

Erabakiak garrantzi handia du, gure herrialdearen egoeraz eta Pinochet bezarantzago. Gizartearentzat balio handia duen erabakia da eta, ikuspuntu horretatik, egun handia da gaurkoa. Bestalde, Garzonnek hasitako prozedura judizialean, gure trantsizio politikoan zintzilik zegoen giza eskubideen gaian justizia egiten ari da. Prozesuak aurrera jarraitzen du. Estradizioa egin daitekeen epea mugatu egin da. Baina atxilotu eta desagertuen kasua, delitu jarraitutzat jotzen dugu; beraz,

Txilek torturaren aurkako batzordea onartu zuenetik indarrean dago.

Txilen bizitzak normal jarraitu du; Pinochet atxilotetak ez du erakunde funtzionamendua eraldatu. Aurten lehendakartzarako hauteskundeak izango ditugu, eta lehendakartzara lortzea espero dugu sozialistok. Giza eskubideen kausa indartu egiten du erabakiak eta horrek poztu egiten gaitu.

■ Zein prozesu jarraituko da hemendik aurrera?

Biktimen senitartekoek esan digutenez, aurrerari aurkeztuko dituzte berriz auzitegian. Ministroaren erabakia falta da, baina gure ustez extradizio prozesuak aurrera jarrai dezala esango du.

Roberto Leon

• DEMOKRAZIA KRISTAUAREN ALDERDIKO PRESIDENTEORDEA •

«Lordek mezu bat igorri diote Strawri»

A. Ormaetxea / Donostia

■ Britainia Handiko Lorden Ganberaren epaiari buruz zer iritzi duzue?

Bi ikuspuntutatik hartu dugu epaia. Batetik, Txileko Gobernuak subiranotasunaren oinarria aurkeztu zuen, eta hori ez dute aintzat hartu lordek; baina bai penal legearen atzeraeraginkortasunaren oinarria. Bestetik, Baltasar Garzon epailearekin batera estradizioa bultzatzen ari direnentzat epaia ez da ona, estradizioa arrazoitzeko erabilitako kasuetariko asko indargabetu egin direlako. Hemendik aurrera Jack Strawk du garrantzia. Lordek mezu bat igorri diote Barne ministroari: estradi-

zioa onartzeko baliatu zen arrazoiak berriro aztertze. Eskenategi berria antolatu beharko du Strawk.

■ Lorden bigarren epaiak Augusto Pinochet Espainiara estraditatzeko aukerak urritzen dituela uste duzue?

Zalantzarik gabe Pinochet estraditatzeko aukerak hurrundu ditu.

■ Eduardo Frei presidentea ministroekin bildu da, Gobernuak aurrerantzean egin beharreko urratsak koordinatzeko. Zein pauso egingo dira?

Presidenteak orain gutxi eskatu digu epaiari buruz zuzenbide alorreko txosten bat lantzeko, Gobernuak zer egin dezakeen ikusteko. Baina oraingoz ez da txostena argitu.